



S.E. DE CARBUROS METÁLICOS, S.A.

Enpresaren identifikazioa eta helbidea

S.E. DE CARBUROS METÁLICOS, S.A.
Charco auzoa, S/N
48480 – Arrigorriaga (Bizkaia)

S.E. DE CARBUROS METÁLICOS, S.A. establezimendua (Arrigorriaga, Bizkaia) irailaren 21eko 840/2015 Errege Dekretuaren xedapenen mende dago (substantzia arriskutsuak tartean diren istripu larriei loturiko berezko arriskuak kontrolatzeko neurriak onartzen ditu dekretu horrek), eta 7. artikuluan xedatzen den jakinarazpena entregatu dio Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailari, artikuluko horretako 1. apartatuan zehazten den edukiarekin, baita 10. artikuluko 1. apartatuan adierazten den segurtasun-txostena ere.

Establezimenduaren jardura

Gas industrialen fabrikazioa

Istripu larria eragin dezaketen substantziak

Izena	H esaldiak	Piktogramak
Azetilenoa	H220: Gas guztiz sukoia. Presiopeko gasa	 
Kloroa	H270: Sutea eragin edo larriagotu dezake; konburentea. H315: Larrazaleko narritadura sortzen du. H319: Narritadura okular larria eragiten du. H331: Toxikoa da arnastuz gero. H335: Arnasbideak narrita ditzake. H400: Oso toxikoa da uretako organismoentzat. Presiopeko gasa	   



Oxigenoa	H270: Sutea eragin edo larriagotu dezake; konburentea. Presiopeko gasa	 
Amoniakoa	H221: Gas sukoia. H314: Erredura larriak eragiten ditu larruazalean, eta lesio larriak begietan. H331: Toxikoa da arnastuz gero. H400: Oso toxikoa da uretako organismoentzat. Presiopeko gasa	   
Hidrogeno kloruroa	H314: Erredura larriak eragiten ditu larruazalean, eta lesio larriak begietan. H335: Arnasbideak narrita ditzake.	 
Sufre dioxidoa	H314: Erredura larriak eragiten ditu larruazalean, eta lesio larriak begietan. H331: Toxikoa da arnastuz gero. Presiopeko gasa	  
Hidrogenoa	H220: Gas guztiz sukoia. Presiopeko gasa	 
Metanoa	H220: Gas guztiz sukoia. Presiopeko gasa	 

Oxido nitrosoa	H270: Sutea eragin edo larriagotu dezake; konburentea. Presiopeko gasa	 
GLP	H220: Gas guztiz sukoia. H340: Akats genetikoak eragin ditzake. H350: Minbizia eragin dezake. Presiopeko gasa	  
Gasola	H226: Likido eta lurrin sukoiak. H304: Hilgarria izan daiteke ahoratuz eta arnasbideetatik sartuz gero. H315: Larrazaleko narritadura sortzen du. H332: Kaltegarria da arnastuz gero. H351: Minbizia eragin dezakeela susmatzen da. H373: Kalteak eragin ditzake organo jakin batzuetan, esposizio luze edo errepikatuagatik. H411: Toxikoa da uretako organismoentzat, eta ondorio kaltegarri iraunkorrak dauzka.	   
Nahasketak, Hidrogenoa + Gas inerteak (Ar/N2)	H220: Gas guztiz sukoia. Presiopeko gasa	 
Konburenteen arteko nahasketak	H270: Sutea eragin edo larriagotu dezake; konburentea. Presiopeko gasa	 



Istripu larriren bat eragin lezakeen egoeraren bat gertatuz gero establezimenduan, eragindako herritarrei ohartaraziko zaie eta informazioa emango zaie.

Honako bitarteko hauek erabiliko dira herritarrek ohartarazteko eta informazioa emateko:

- Zuzeneko abisuak, Babes Logistikorako Taldearen ibilgailuetako megafonia bidez.
- Hedabide sozialak (telefonía, faxa, posta elektronikoa, herri-irradiak, tokiko TV kateak).

Azken ikuskapena

2019ko Apirilaren 3an egin zen azken *in situ* ikuskapena.

Aurrez eskatuta, azken *in situ* bisitaren eta ikuskatze-planaren datuak lor daitezke, hemen:

Industria Erregelamendu eta Segurtasun Zerbitzua

Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren Zuzendaritza
Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila
Donostia kalea 1
01010 Vitoria – Gasteiz

Informazio gehigarria

Informazio gehiago nahi izanez gero, jo hona:

Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza

Foronda kalea 41, La Torre eraikina
01010 Vitoria – Gasteiz